

# SERIEA OSATZEN DUTEN KAPITULUAK

- 1.- TEKLADUNAEROFONOAK
- 2.- TEKLADUN KORDOFONOAK
- 3.- METALEZKO AEROFONOAK
- 4.- ZUREZKO AEROFONOAK
- 5.- HARIIGURTZIZKO KORDOFONOAK
- 6.- HARI SAKATUZKO KORDOFONOAK
- 7.- PERKUSIOA -I-
- 8.- PERKUSIOA -II-
- 9.- AHOTSA
- 10.- JATORRIZKOMUSIKA TRESNAK
- 11.- ELEKTROFONOAK

## HOTSAK SORTZEN

**AHOTSA**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILAREN  
LAGUNTZAZ EGINA.  
EIMA programa, 1985

## ZER DA HOTSAK SORTZEN?

HOTSAK SORITZEN bideo serieak gaur egun musikaren munduan erabiltzen diren musika tresnak, taldeka sailkatutik, ikaslegoari erakutsi nahi dizkio eta bere helburu nagusia ikasleria horri musikaren alderdi honen ulermena erraztea eta laburbiltzea da.

Bideo seriea musika ematen duen irakasleari bere eguneroko lanean laguntzeko tresna osagarri bat eskaintzeko asmoz eratu da. Horrela, berak eskuartean dituen bestelako bitartekoak, liburuak, musika tresna bidezko ekimenak, audizioak e.a. HOTSAK SORTZEN bideo serieaz indartu eta aberastu egin ahal izango ditu.

Musika tresnak sailkatzerakoan erabiltzen hitzegia orohar, C. Sandis-ek 1914. urtean proposatu zuenari jarraituz osatu da. Dena dela, irakasleak ikusi beharke du zeren hitzegi komerzi zaien, orain arte arabili duena kontuan hartuta. Hala ere, interesgarria litzateke ikasleriarengan antzinako formei buruzko jakinahia piztea. Izan ere, gaur egun arruntki erabiltzen diren hainbat hitzek, orduko oroitzapena baitakarkigute. Besteak beste "telefono", "fonoteka" eta horretakoak.

## NOIZ ETA NOIA ERABILI HOTSAK SORTZEN

Hots eta doinuak sortzen duten musika tresnei buruzko lan didaktiko hau, HOTSAK SORTZEN batatatu duguna, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan diharduten taldeentzat pentsatua dago. Adierazpen Instrumentala izenburua duen Atal Nagusian legoke eta honen barruan Bigarren Eduki Multzoan "Adierazpena eta Komunikazioan" alegia.

Bideo serieari heldu aurretik komenigarria litzateke ikasleria apur bat prestatutik izatea. Horretarako, modu enpirikoan bada ere, irakaslearen hitzaldiak medio, ikasleria musika tresna eta hotsen berezitasun fisikoen berri izan dezan saiaturko gara lehenbizi. Gero, ezaguera enpiriko horretatik egoera kognosizibora iragan daitezen ahaletginduko gara, Bigarren Eduki Multzo hau eta Hirugarrena "Musika Historian" dioena erlazionatuz.

## SERBIAREN EDUKI OROKORRAK

Bideo bakoitzak eremu historikoan aurkezten ditu musika tresnak, garaien garaiko moda eta estloien eboluzioak berarengan sortutako aldaketak erakutsiz bai teknikoki bai apaingarritan. Musika tresna ezberdinak ikusteak "Hotsak nola sortzen diren" erakustea du xede. Gai honek berebiziko zailtasunak ditu hainbat kasutan, esate baterako organoan. Horregatik, nahitaezkoa da instrumentuak zehatz-mehatz ikustea eta entzutea hori guztia ulertzeko. Horra hor ikus-entzutekoen papera.

Bideoan kontu handiz ukitzen den beste alderdi bat zera da: musika tresna bakoitzari dagokion toki fisikoa eta ingurunea. Azken hauek aldaketa nabarmenak ezagutu dute historian zehar, garaia, giroa eta musika tresnaren erabileraren arabera.

## HELBURU OROKORRAK

- 1.- Musika tresna bakoitza berezko dituen doinuak medio ezagutua izan dadin lortzea.
- 2.- Doinua eta doinu hori ekoizten duen musika tresna erlazionatzea. Horrekin batera doinua sortzeko modua eta forma musika tresnarekin erlazionatu.
- 3.- Musika tresna bakoitzak historian bete duen lekua kokatzea.
- 4.- Doinuaren berezitasunak ezagutu, aurreko esperientzia musikaletan jasotako ezagueraz baliatuz.
- 5.- Musika taldeen barruan instrumentuak bereiztea. Lan hau musikagile kopuru ezberdinez osaturiko musika taldeekin egingo dugu.
- 6.- Musika tresnak ikaslearen ingurune hurbilarekin erlazionatu.
- 7.- Mendebaldeko musika talde garrantzitsuenen ezagutza. Batia norberaren herri ingurukoak ere.

## BIGAREN HELBURUAK

- 1.- Entzunmena garatzea.
- 2.- Doinuaren berezitasunak partitura batean nola adierazten diren ezagutzea.
- 3.- Doinuaren ezaugarri guztiak sor dezaketen instrumentuak sortzea.
- 4.- Musika eta natura elkarreza. Manifestazio hau nola ematen den erakustea instrumentuetan. Esaterako organoak badiu "Ixori kantua" izeneko errejistro bat.

## JARRERAZKO HELBUURAK

- 1.- Talde lana bultzatuz, taldeari buruzko balorazioa eta errespetua landu.
- 2.- Erantzukizuna garatu proposaturiko ekintzetan parte bizia hartuz.
- 3.- Atenzioa, obserbazioa, kontzentrazioa eta isiltasuna biztu, inguruan dutenez ohartzeko (hotsak eta doinuak barne) biderik onenak baitira.
- 4.- Musikaren lengoaiaren orokortasuna sentitzen saiatu munduko gizarte guztietan erabiltzen dela erakutsiz. Bestalde musikaren ahalmen terapeutikoen berri ere emango diegu.
- 5.- Taldeko beste lagunekiko izan behar dugun begirune eta errespetua garatu.

## ARIKETAK

—Ikasleci ahal duten musika tresna guztiak klasera ekar dezaten eskatuko diegu. Material hori guztia famillatan salkatuko dugu edo taldeetan. Jarrailan ikasleek musika tresna bakoitzaz demostrazio bat egingo dute eta denen artean, musikajolea eta entzuleen artean instrumentuaren ezaugarriak zehaztuko dituzte, beti irakaslearen gidaritzapean.

—Herrian edo hirian ematen diren kontzertuetara joatea nahitaezko ariketa da, bideo serie hau modu egokian landu nahi bada. Kontzertu oslean, klasean, ikasleek ikusi duten orkestra, banda edo musika taldea zaittu egingo dute doinu eta instrumentuen arabera.

—Bideo seriean erakusten diren instrumentuak komeni da historikoki begratzea. Horretarako, gure herriko zein gertuen dugun hiriko antzinako eraikuntza nahiz museoetara joatea aholkatzen da. Toki horietan erraz aurkituko ditugu antzinako musika tresnen arrastoak. Elizetako estatua eta irudietan edota arte ederretako museoetako koadroetan.

Ariketa hau egingez gero, <<MUSIKA - ARTEA - GARAIKO ESTILOA>>, erlazionatu ahal izango ditugu.

## KAPITULUAREN GIDA DIDAKTIKOA

### EDUKIA

Kapitulua lau atal nagusitan banatua duzu:

#### -Lehen atala. Aurkezpena.

Hastapenetan ahotsa ideiak zabaltzeko erabiltzen zen. Geroago erritmoa eta harmonia erantsi zitzaion. Lehen abesbaldak erlijiosoak izan ziren. Erdi Aroan emakumeek debekatua zutenekoruan kantatzea, emakume ahotsa lotzeko, "castrati" izeneko irendutako mutikoez baliatzen ziren. Hemeretzigarren mendetik aurrera koru musika hedatu egin zen.

#### -Bigarren atala. Ahotsaren mekanismoa.

Birikak, laringea, faringea eta ahoa dira ahotsa izan dadin beharrezkoak diren gorputz atalak. Birikek airea jaso eta askatzen dute.

Airea askatzean laringetik iraganarazten da. Laringean dauden ahots hartek dardara egiten dute eta hotsa sortzen.

Hotsa laringetik iragaten da. Hauxe da erresonantzi kaxa.

Gero ahoan ditugun matrail hezurrak, mihiak eta ezpainek hotsa modelatu egiten dute.

#### -Hirugarren atala. Emakumezkoen ahotsak.

Emakumezkoen ahotsen artean hiru bereiziko ditugu.

Sopranoa, emakumezkoen ahotsik garaiena da.

Mezzo sopranoa, emakumezko ahotsen bigarren taldea osatzen duena da.

Kontraltua, emakumezkoen ahotsen artean, baxuena da.

#### -Laugarren atala. Gizonezkoen ahotsak.

Gizonezkoen ahotsen artean lau bereiziko ditugu. Kontratenorea gizonezkoen ahotsen artean garahena da.

Tenorea ahotsik ezagunena da. Tenore arina, tenore lirikoa eta tenore dramatiko bereizi ohi dira.

Baritonoa sendotasun eta bolumen handiko ahotsa da. Baritono lirikoa eta baritono dramatiko bereizi ohi dira.

Baxoa gizonezkoen ahotsen artean grabeeena da. Baxu kantaria eta baxu sakona bereizi ohi dira.

## GLOSARIO

AHOTISA	ERRITMOA	HARMONIA
"CASTRATI"		
KORUMUSIKA	ABESBATZA	
"BEL CANTO"		
BIRKA	LARINGEA	
AHOTSHARIAK	FARINGEA	
AHOA	MIHIA	EZPAINA
SOPRANOA	MEZZO SOPRANOA	
KONTRALTOA		
KONTRATENOREA	TENOREA	
BARTONOA	BAXUA	

## LIBURUAK

- El libro de la música--  
V.V.A.A.  
Parramon Instituta
- Musicalia--  
V.V.A.A.  
Salvat, Iruña 1987
- Atlas de la música--  
ULRICH, Michels  
Alianza argitaletxea, Madrid 1982
- Diccionario Oxford de la música--  
SCHOLLES, Percy A.  
Edhasa, Hermes, Sudamericana,  
Barcelona, 1984.